

ORDIZIA ▶

Oianguko putzu eta haltzadira irteera

Oiangu Publikoa eta Bizirik Plataformak irteera berezia antolatuta datorren larunbaterako. Goizeko 10:30ean abiatuko dira Altamira auzoko Txola edaritegiaren aurretik eta Aranzadiko Ornodun eta Botanika saileko ikerlariekin batera Oianguko putzu eta haltzadiak gertutik ezagutuko dituzte. Izan ere, plataformako kideek azaldu dutenez, «azken hamarkadetan anfibio-populazioen gainbehera nabaria ematen ari da mundu mailan. Egoera kezagarri honen baitan Oianguko putzuaren edo errekaostoen inguruan garatzen den haltzadiaren moduko habitatek, anfibioen garapenerako baldintza oso aproposak eskaintzen dituzte».

BEASAIN ▶

Bihar Trenbide kalean segiko du trafiko kanpainak

Ibilgailuak behar bezala aparka ditzaten herritarrei zuzendutako kanpainak Trenbide kalean izango du jarraipena bihurtik aurrera. «Barrendain plazatik Joan Iturralde kaleko bidegurutzeraino zehazki». Ia hamabost egunetan Foru kalean burutu da kanpaina eta udaltzaingotik zehaztu dutenez, espaloian edota oinezkoen pasabidean aparkatzeagatik guztira 33 abisu jarri dira.

BEASAIN ▶

Astelehenetan egin daiteke federazio karneta

Beasaingo Aizkorri Mendizale elkarteak kideek jakitera eman dutenez, orain arte ez bezala otsaileko hilabete guztian zehar astelehenetan bakarrik egongo da aukera mendi federazio txartela egiteko. Karnet hau egiteko asmoa dutenek elkartearen egoitzara jo behar dute eta honako ordutegi honetan egongo da horretarako aukera: iluntzeko 19:00etatik 20:00ak arte.

ZALDIBIA ▶

Galarragaren omenez ekitaldiak atzo

Hodei Galarragaren omenez hainbat ekitaldi egin dira herrian Zaldibiako Gazte Taldeak antolatuta. Galarragak 26 urte beteko baitzituzkeen egun hauetan. Asteburuko egitarauari gaur emango zaio amaiera; 18:30ean bideo emanaldia izango da kultur etxean. Atzoko egunean ere izan zen zer ikusia. Ping-pong eta karabina txapelketak egin ziren arratsalde partean, eta iluntzean, gaztetxean aldeko triki-poteoa. Gaualdean, berriz, Materia eta Berri Txarrak taldeen musika kontzertuak bereganatu zuen bertako eta Zaldibiara hurbildutako gazteen arreta.

SEGURA ▶



Segurako San Andres ermitan, atzo, antzinako eran jantzita. E. IMAZ

San Andres ermita grabazio-plato, atzo

Lauzpabost mende atzera egin zuen denboran Segurako San Andres ermita grabazio-plato. Eneko Haritzaren Lagunak kultur elkarteak grabatzen ari den filman ateratzeko 50 bat lagun elkartu ziren, garai bateko moduan jantzita, abarka-galtzerdi eta guzti. XVI-XVII. mendeetan oinarrituta dago filmaren gidoia, eta Inkisizioaren gaia jorratu du. Apaizaren sermoia entzun zuten atzo Seguran bildutako aktore laguntzaileek. Tolosaldetik, Algortatik eta Seguratik bertatik erantzun zioten grabaketarako deia.

ITSASONDO ▶ UDALA

Arau subsidiarioak aldatzeko prozesua abiarazi du Udalak

Datorren astean sinatuko dute hitzarmena Udalaren eta proiektuak egiteko ardura duen enpresaren artean



Etorbizuneko herriak izango duen antolaketa zehaztuko dute Arau Subsidiario berriek. A. APALATEGI

A. APALATEGI

Itsasondoko Udalak herriko Arau Subsidiarioak berrituko ditu. Horretarako bi urte iraungo duen prozesu bat abiaraziko du. Datorren astean sinatuko dute akordioa proiektuak egiteaz arduratuko den enpresarekin.

Arau Subsidiarioak herri baten antolaketaren oinarria dira, bertan zehazten baita, besteak beste, etxeak non eraiki edota lur bakoitzak zein erabilera izan dezakeen. Hori dela eta, Itsasondoko Udaleko Danel Etxeberriak arauak berritzea herri batentzat «ezinbestekoa» dela adierazi du. Bere hitzetan, «Arau Subsidiarioen azken berrikuntza 1989an egin zen, eta dagoeneko bada garaia arau

PROZESUA

Prozesu honek bi urte iraungo du. Proiektuak egin ahala, hauek herriari eztabaidatzea da Udalaren asmoa

hauek berritzeko, etorkizunari begira».

Behin aldatetako onartuta, herriko proiektu garrantzitsuenak gauzatzeko enpresa bat kontratatuko da. Guztira lau aurkeztu ziren lehiaketara. Aukeraketan Jose Luke eta Izaskun Aseginolaza (UTE) enpresa izan da hautatua. Enpresa horrek eta Itsasondoko Udalak datorren astean sinatuko dute elkarlanerako hitzarmena.

Arau horien aldaketa bi urte iraungo duen prozesua izango da. Bertan enpresak bere proiektu proposamenak aurkeztuko ditu. Itsasondoko Udalaren asmoa, behin proiektuak aurkeztutakoan, herriari eztabaidatzea da. «Udalak herri mailan zabaldu nahi ditu proiektu hauek, eta aldi berean, herritarren proposamenak ere jaso nahi ditugu».

Prozesuak bi urte irautearen arrazoi nagusia legeak ezartzen dituen epeak dira. «Herriarentzat duen garrantzia ikusita, ez da presaka egiteko kontua», dio Etxeberriak. «Gainera, Itsasondo Agenda 21 egitasmoan sartuta dagoenez, arauak ere Agenda 21 en barruan sartzea da gure asmoa», gaineratu du Etxeberriak.

Polimeroen injenieritza + AURREMATRIHULA ZABALIK
etorkizuna bideratuko dizu

uni.leartik.com

+ Jardunaldi irekia
Otsailaren 18an Larunbata 10.30etan

lea artibai

Ameyra Etxebarria, 19 - 48270 Markina-Somera (Bizkaia) Tf. 94 836 90 02 Fax. 94 836 91 80 info@uni.leartik.com uni.leartik.com